

Azken egunak matrikula egiteko hezkuntzako unibertsitate masterretan

2015/09/01

Irailaren 15ean bukatuko da ezohiko epea matrikula egiteko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko masterretan. 2015-2016 ikurtean, hezkuntzarekin lotutako hiru unibertsitate master eskainiko ditu fakultateak: eskolak emateko gaitzen duen masterra, berrikuntza didaktiko eta metodologiko masterra eta hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan masterra. Gainera, 2016ko urtarriletik aurrera, Kirol-hezitzailea aditu titulu berria ere emango da Aretxabaletako campusean.

Hurrengo webguneetan aurki daiteke hiru unibertsitate master horien gaineko informazio zehatza:

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (BHM). Master presentziala da, eskolak arratsaldean izaten dira.
2. Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (Berrimet). Master hau euskaraz edo gazteleraz egin daiteke eta %100 *online* da.
3. Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu). Master hau euskaraz edo gazteleraz egin daiteke eta %100 *online* da.

Kirol-hezitzailea aditu titulu berriaren gaineko informazioa osoa, bestalde, hemen dago jasota: Kirol-hezitzailea aditu titulua.



Irailaren 15ean bukatuko da epea matrikula egiteko.